# Newsletter

Atal honetan, Euskadiko Turismo Behatokiaren newsletter-ak ikus ditzakegu, baita horiek guztiak biltzen dituen historikoa ere.

## 25. Newsletterra Iraila 2026

Enfokaturrek, Euskadiko Turismo Behatokiak, Euskadiko turismo-eskaintzaren eta -eskariaren koiuntura-adierazle nagusien azterketa laburra egin du, **2026ko urte metatuari eta 2026ko** ekainari nahiz **uztailari** dagozkienak, legezko **turismo-ostatu guztiei** lotuta.

### 2026. URTE METATUA (URTARRILA-UZTAILA)







**2026ko urte** metatuak **balantze positiboa** erakusten du 2025eko une beraren aldean: **+ % 3,8 eguneko ostatu-plazetan** (61.138), **+ % 2,3** sarreretan (2.847.003), **+ % 3,6** gaualdietan (5.990.876) eta **+ % 1 plazen araberako okupazioan** (% 39,70).




**Orain arte,ostatu-tipologia guztiek eguneko plaza gehiago eskaini dituzte** 2026an, 2025. urtearekin alderatuta. **Eskariari** dagokionez, **landa-ostatuek adierazle guztietan egin dute behera**. Kanpinen kasuan, sarrerek eta gaualdiek behera egin dute. Eta, **plazen araberako okupazioari** dagokionez, hotelek beherakada izan dute.




**Helmuga guztiek eguneko plaza-eskaintza handitu dute** 2025eko urtarrila-uztaila sasoiarekin alderatuta, **Donostiak izan ezik, gutxiago eskaini baitu** (- % 3). **Vitoria-Gasteizek eta Donostiak behera egin dute sarreretan eta gaualdietan. Eta, plazen araberako okupazioan, helmuga gehienek egin dute behera, Bilbok eta Donostiak izan ezik (horiek gora egin baitute).**

### IGORLE-MERKATUEN 2026KO URTE METATUAN (URTARRILA-UZTAILA)

| POSIZIOA | JATORRIAK | 2026KO SARREREN % KUOTA | SARRERAK 2026 vs 2025 | GAUALDIAK 2026 vs 2025 |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Madrilgo Erk. | %11 | %8,8 ↓ | %8,2 ↓ |
| 2 | Euskadi | %10 | %0,1 ↑ | %0,9 ↓ |
| 3 | Frantzia | %8,7 | %0,9 ↑ | %2,5 ↑ |
| 4 | Katalunia | %6,9 | %1,9 ↓ | %2 ↓ |
| 5 | Estatu Batuak | %4,9 | %7,4 ↑ | %5,8 ↑ |
| 6 | Erresuma Batua | %4,9 | %2,8 ↑ | %10,2 ↑ |
| 7 | Alemania | %4 | %6,5 ↑ | %11,2 ↑ |
| 8 | Gaztela eta Leon | %3,4 | %1,2 ↑ | %1,1 ↓ |
| 9 | Andaluzia | %2,9 | %0,5 ↓ | %1,1 ↓ |
| 10 | Valentziako Erk. | %2,9 | %5,5 ↑ | %4 ↑ |

**Nazioarteko merkatuak % 4,9ko hazkunde** metatua du, eta **lehen aldiz % 50eko merkatu-kuota** lortu du 2025eko metatu berarekin alderatuta. **Nazio mailako merkatuak, aldiz, merkatu-kuota galdu du, % 0,2ko beherakada metatuarekin.**

**10 merkatu igorle nagusien artean nazioarteko lau merkatu daude: Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Alemania.** 10 onenen zerrenda honetan, **merkatu gehienek hazkundea izan dute**, Madrilgo Erkidegotik, Kataluniatik eta Andaluziatik datozenek izan ezik, sarreretan zein gaualdietan behera egin baitute; barne-merkatuak (Euskadik) eta Gaztela eta Leonek, berriz, gaualdietan egin dute behera. **Erresuma Batuak, Alemaniak, Estatu Batuek, Valentziako Erkidegoak eta Kataluniako merkatuak gora egin dute turista-sarreretan.**

Sailkapeneko buruan hauek daude, hurrenkera honetan: **Madrilgo Erkidegoa (% 11), barne-merkatua (Euskadi) (% 10), Frantzia (% 8,7), Katalunia (% 6,9) eta Ameriketako Estatu Batuak (% 4,9).**

### 2026KO EKAINA







**2026ko ekainean, 2025eko hilabete beraren aldean, eguneko % 3,6** plaza gehiago (66.373) eskaini dira. Halaber, ostatu-eskariaren **adierazleek gora egin dute: sarreretan + %1,1** (489.977), **gaualdietan + %2,1** (1.024.547), eta plazakako okupazio-mailan **+ %0,4** (%46,10).




**Alojamendu-tipologiei dagokienez, plaza-eskaintzak gora egin du** mota gehienetan, 2025eko ekainarekin alderatuta, kanpalekuetan izan ezik (- % 0,8). **Eskari-adierazleei** dagokienez, **apartamentu eta alberge turistikoek** gorakada izan dute adierazle guztietan; hotelek sarreretan eta gaualdietan egin dute gora; kanpinek okupazio-mailan; eta landa-ostatuek beherakada itxi dute ekaina adierazle guztietan.




**Eguneko plaza-eskaintza handitu da helmuga gehienetan, Donostian izan ezik (- %3,2)**, 2025eko ekainarekin alderatuta. Eskariari dagokionez, **Bilbok igoerak erregistratu ditu adierazle guztietan. Gasteizek, Euskal Kostaldeak eta Arabako Errioxak beherakada izan dute adierazle guztietan. Donostiak behera egin du sarreretan eta ostatu-gauetan. Eta Barnealdearen kasuan, plaza bidezko okupazioan jaisten da soilik.**

2026ko ekainean, **nazioarteko merkatuak %53ko kuota izan du**, eta %3,5eko hazkundea erregistratu du. Aitzitik, merkatu nazionalak

10 MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2026KO EKAINA

| POSIZIOA | JATORRIAK | 2026KO SARREREN % KUOTA | SARRERAK 2026 vs 2025 | GAUALDIAK 2026 vs 2025 |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Madrilgo Erk. | %9,7 | %10,2 ↓ | %8,3 ↓ |
| 2 | Euskadi | %9,7 | %11 ↑ | %13,1 ↑ |
| 3 | Estatu Batuak | %7 | %2,2 ↓ | %5,2 ↓ |
| 4 | Erresuma Batua | %6,5 | %14,3 ↑ | %21,6 ↑ |
| 5 | Katalunia | %6,1 | %14,4 ↓ | %16,5 ↓ |
| 6 | Frantzia | %5,9 | %5,4 ↓ | %2,5 ↓ |
| 7 | Alemania | %4,8 | %1,3 ↓ | %5,6 ↑ |
| 8 | Gaztela eta Leon | %3,3 | %6,4 ↑ | %5,4 ↓ |
| 9 | Italia | %3,1 | %29,8 ↑ | %28,4 ↑ |
| 10 | Herbehereak | %3 | %5 ↑ | %2,2 ↑ |

**%1,5eko beherakada izan du** 2025eko ekainarekin alderatuta.

2026ko ekaineko 10 merkatu igorle nagusien artean, **hazkundeak erregistratu dira barne-merkatuan (Euskadi), Erresuma Batuan, Italian eta Herbehereetan. Alemaniaren kasuan, gaualdiek gora egin dute, baina sarrerek ez; Gaztela eta Leonetik etorritako turisten artean, berriz, sarrerak hazi egin dira, baina gaualdiek behera egin dute**. Hil honetan, **10 merkatu igorle nagusien artean nazioarteko sei merkatu daude, honako hurrenkera honetan: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Italia eta Herbehereak.**

Sailkapenaren buruan honako merkatu hauek daude, hurrenez hurren: **Madrilgo Erkidegoa (%9,7), barne-merkatua (Euskadi) (%9,7), Estatu Batuak (%7), Erresuma Batua (%6,5) eta Katalunia (%6,1).**

## 2026KO UZTAILA

**SARRERAK** 578.072 (+%6,6)

| | | | |
|---|---|---|---|
| Hotelak | %7,7 ↑ | Vitoria-Gasteiz | %1 ↑ |
| Nekazalturismoa | %2,7 ↑ | Bilbao | %4,8 ↑ |
| Kanpinak | %3,8 ↓ | Donostia | %2 ↓ |
| Apartamentu turistikoak | %9,7 ↑ | Euskal Kostaldea | %8 ↑ |
| Aterpetxe turistikoak | %13,1 ↑ | Mendi eta haranak | %24,3 ↑ |
| | | Arabako Errioxa | %3,8 ↓ |

**GAUALDIAK** 1.346.900 (+%6,4)

| | | | |
|---|---|---|---|
| Hotelak | %6,7 ↑ | Vitoria-Gasteiz | %5,9 ↓ |
| Nekazalturismoa | %5,6 ↓ | Bilbao | %6 ↑ |
| Kanpinak | %0,1 ↑ | Donostia | %3 ↑ |
| Apartamentu turistikoak | %23,3 ↑ | Euskal Kostaldea | %4,2 ↑ |
| Aterpetxe turistikoak | %11 ↑ | Mendi eta haranak | %15,3 ↑ |
| | | Arabako Errioxa | %4,8 ↓ |

PLAZAKAKO OKUPAZIO-MAILA (%) * (VS. 2025)




| | | | |
|---|---|---|---|
| Hotelak | %1 ↑ | Vitoria-Gasteiz | %7,6 ↓ |
| Nekazalturismoa | %5,7 ↓ | Bilbao | %4,9 ↑ |
| Kanpinak | %8,9 ↑ | Donostia | %2 ↑ |
| Apartamentu turistikoak | %9,8 ↑ | Euskal Kostaldea | %3,2 ↑ |
| Aterpetxe turistikoak | %4,9 ↑ | Mendi eta haranak | %3,8 ↓ |
| | | Arabako Errioxa | %10,8 ↓ |

**ESKEINITAKO PLAZAK EGUNEKO** 69.203 (+%4,8)

| | | | |
|---|---|---|---|
| Hotelak | %5,6 ↑ | Vitoria-Gasteiz | %2 ↑ |
| Nekazalturismoa | %0,2 ↑ | Bilbao | %1 ↑ |
| Kanpinak | %0,8 ↑ | Donostia | %0,9 ↑ |
| Apartamentu turistikoak | %12,2 ↑ | Euskal Kostaldea | %1,6 ↑ |
| Aterpetxe turistikoak | %5,7 ↑ | Mendi eta haranak | %15,3 ↑ |
| | | Arabako Errioxa | %1,7 ↑ |

2026ko uztailean, egunean **eskainitako plazak %4,8 hazi dira** (69.203), 2025eko hilabete berarekin konparatuta. Era berean, **ostatu-eskariaren adierazleek ere gora egin dute**: bisitari-sarrerak **%6,6** hazi dira (578.072), **gaualdiak %6,4** (1.346.900), eta **plazakako okupazio-mailak %2,3** (%58,70).

Ostatu-tipologiei dagokienez, **egunean eskainitako plazen eskaintzak gora egin du ostatu-mota** guztietan, 2025eko uztailaren aldean. **Eskari-adierazleei dagokienez, hotelek, apartamentu turistikoek eta turismo-aterpetxeek hazkundea** izan dute adierazle guztietan. Aldiz, **kanpinek beherakada erregistratu dute bisitari-sarreretan, eta landa-ostatuek gaualdietan eta plazakako okupazio-mailan.**

**2025eko uztailaren aldean, Gasteizek eta Arabako Errioxak beherakadak** erregistratu dituzte ostatu-eskariaren adierazle guztietan. Aitzitik, **Bilbok eta Euskal Kostaldeak hazkundea izan dute adierazle guztietan. Donostiaren kasuan, aldiz, bisitari-sarrerak jaitsi dira, eta Barnealdean, berriz, plazakako okupazio-mailak egin du behera.**

## 10 MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2026KO UZTAILA

| POSIZIOA | JATORRIAK | 2026KO SARREREN % KUOTA | SARRERAK 2026 vs 2025 | GAUALDIAK 2026 vs 2025 |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Madrilgo Erk. | %9,8 | %9,3 ↓ | %9,4 ↓ |
| 2 | Frantzia | %8,5 | %10,8 ↑ | %9,5 ↑ |
| 3 | Euskadi | %7,2 | %9,1 ↑ | %4,1 ↑ |
| 4 | Katalunia | %6 | %2,2 ↑ | %1,9 ↑ |
| 5 | Estatu Batuak | %5,8 | %0,6 ↓ | %7,1 ↓ |
| 6 | Erresuma Batua | %5,3 | %13,9 ↑ | %20 ↑ |
| 7 | Herbehereak | %4,3 | %14,3 ↑ | %12 ↑ |
| 8 | Alemania | %4,1 | %14,6 ↑ | %16,8 ↑ |
| 9 | Italia | %3,7 | %31,4 ↑ | %32,4 ↑ |
| 10 | Belgika | %3,4 | %8,3 ↑ | %13,6 ↑ |

**Nazioarteko merkatuak merkatu nazionalak baino kuota handiagoa izan du**, %58 eta %42, hurrenez hurren. Gainera, **hazkunde handiagoa erregistratu du: nazioarteko merkatua %8,2 hazi da, eta merkatu nazionala, berriz, %4,4**, 2025eko uztailaren aldean.

2026ko uztaileko 10 merkatu igorle nagusien artean, **gehienetan hazkundea**k erregistratu dira, **Madrilgo Erkidegoko eta Estatu Batuetako** merkatuetan izan ezik. Hil honetan, 10 merkatu igorle nagusien artean nazioarteko **zazpi merkatu daude: Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Herbehereak, Alemania, Italia eta Belgika.**

Sailkapenaren buruan daude, ordena honetan: **Madrilgo Erkidegoa (%9,8), Frantzia (%8,5), barne-merkatua (Euskadi) (%7,2), Katalunia (%6) eta Estatu Batuak (%5,8).**

2026

2026eko ekaineko newsletterra

2026eko apirileko newsletterra

2026eko otsaileko newsletterra

2026eko urtarrileko newsletterra

2025

2024

2023

enfokatur
euskadiko behatoki turistikoa
observatorio turístico de euskadi

## Kontaktua

**Basquetour - Turismoaren Euskal Agentzia**
**Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila**
Urkixo zumarkalea 36 - 5. solairua. Bizkaia Plaza



Eraikina - 48010 Bilbo

observatorio@basquetour.eus






#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO